



“Ez gara liburuez arituko:

Haur eta Gazte Fikzio Digitala baloratzeko giltzak”

Galtzagorri Elkarteak 2005etik martxan duen Haur eta Gazte Literatur arloko Irakurketa Mintegiaren barruan, urtero-urtero tailer zein hitzaldi bat eskaintzen die parte hartzaileei nahiz interesa duen edonori.

Aurten, **Fikzio Digitalaren** inguruko tailerra egingo du Lucas Ramada Prieto adituak. Zer da fikzio digitala? Nola komunikatzen da? Nola galdegiten dio hartzaileari? Zer da bitartekari rola jokatzeko jakin beharrekoa? Kultur adierazpide honen oinarrizko ideiak eta obrak ezagutzera emango ditu. Azalpen teorikoak testuen irakurketa partekatuarekin osatuko ditu. Helburua tailerrean parte hartzen dutenen begirada kritikoa garatu dadin da eta, bide batez, halako obrak baloratzeko irizpideak metatzea bitartekari lanak bete ahal izateko. Haurrei zein gazteei zuzendutako kultur forma berri horiek ulertzeko erremintak emango ditu Ramadak parte hartzaileek fikzio digitalarekin harik eta gehien goza dezaten.

METODOLOGIA:

Lucas Ramadak tailer parte hartzailea egingo du. Parte hartzaileei tabletak utziko dizkie eta aretoko pantaila handiaz lagunduko da. Fikzio digitala zer den eta haren adibideak erakutsiko ditu bakoitzari buruzko gogoetak eginez eta sustatuz. Helburua kalitatezko fikzio digitaletara iristeko bideak eta fikzio eredu berri horiek baloratzen ikasteko irizpideak ematea da.

NORENTZAT:

Haur eta gazteen irakurzaletasuna sustatzeko kezka eta interesa duen edozein bitartekarirentzat: irakasle, bibliotekari, guraso, hezitzaile, dinamizatzaile, sortzaile, ikerlari, irakurle...

NON: Donostiako San Telmo museoan. Ekitaldi aretoan: Zuloaga plaza, 1, 20003, Donostia.

NOIZ: Azaroaren 23an, 9:30etatik 13:30etara. Ordu erdiko atseden bat egingo da.



IZEN EMATEA: Izen emate orria beteta eta diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria bidali behar dira **azaroaren 15a** baino lehen administrazioa@galtzagorri.eus helbidera.

Gehienez 40 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen ematearen arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko bazkideak: 40 euro.
- Ez-bazkideak: 60 euro.

IRAKASLEA:



LUCAS RAMADA PRIETO (Colindres, Kantabria, 1985). Oviedoko Unibertsitatean Filologia Hispanikoa ikasi zuen. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (BUA) Hizkuntza Didaktika eta Literatura Masterra egin zuen eta arlo berean doktorea da. Bere tesiaren titulua honakoa da: *Esto no va de Libros. Literatura infantil y juvenil digital y Educación Literaria*. Bere espezialitatea haur eta gazteei zuzendutako fikzio digitala da. Gai horren bueltan tailer eta ikastaro ugari egin ditu estatuan nahiz nazioartean. Haur Literatura Elektronikoaren inguruko erakusketetan komisario lanak egin ditu. BUAKo GRETEL Haur eta Gazte Literatura ikertzen duen lantaldearen blogaren barruan fikzio digitalen gomendioen atala koordinatzen du.

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:

